

2017-09-26an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 26-09-2017 .

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
 Maite Zubia Atxaga  
 Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
 Maite Uribe Beristain  
 Aitor Zubizarreta Alegria  
 Aintzane Agiriano Errasti  
 Edorta Barandiaran Garcia  
 Nestor Arana Arexolaleiba  
 Rafael Bernal Gato  
 Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza

#### Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2017ko irailaren 26an, arratsaldeko seiak eta erditan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, José Ramón Zubizarreta Alegría alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 26 de septiembre de 2017, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegría, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2017/06/27 eta 2017/07/20 (ohiko bilkura eta ezohiko bilkura).

## **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2017ko irailaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da. Berariaz eman da 10., 11., 12., 13., 14 eta 15. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkateen erabakien berri.

## **3.- UDAL LANGILEEN 2017KO ORDAINSARIEI BURUZKO ERABAKIA: % 1-eko igoera.**

Estatuaren 2017rako Aurrekontu Orokorreai buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2017ko ekainaren 28an.

Lege horrek, Pertsonal gastuei buruzko hirugarren tituluan, honako hau dio 18.2 artikuluan: “*En el año 2017, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar una incremento global superior al 1 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre d 2016, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo*”.

Aipatutako arauan oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- 2017ko ekitaldirako Udal honen zerbitzura ari diren langileen ordainsariekin % 1eko igoera izatea 2016ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko da langileen kopuruari zein antzinatasunari begira, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorreai buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legeko 18.2 artikuluan zehaztutako aukera kontuan hartuta.

## **4.- 2017-RAKO ARAUDI PLANA.**

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, aho batez erabaki da Udal honek 2017an onartzea edo aldatzea aurreikusten dituen ordenantza edota araudiak honako hauek direla:

- **ESKORIATZAKO GIZARTE EKINTZAKO BATZORDEAREN ARAUDIA.**

Udalak “Eskoriatzako gizarte ekintzako batzordea” sortu nahi du Eskoriatzako Udalaren eta gizarte eragileen arteko elkarritzeta eta topagune foroa izan dadin, eta baita gizartearen errealtitatearen ezagupena hobetzeko eta informazio fidagarri eta eguneratuan oinarrituta ekintzak egiteko tresna bat izateko ere.

Araudiarekin batzorde horren funtzionamendua arautu gura da.

- **UDAL KIROL ZERBITZUEN ETA INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ARAUDIA.**

Araudi honen bidez udal kirol zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko baldintzak eta horien erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrok arautu nahi dira.

**5.- HERRIKO JAI EGUNA 2018. URTERAKO.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak erabaki du herriko jai eguna izateko ekainaren 29a, San Pedro eguna, proposatzea.

**6.- ABALA ITZULTZEKO ARIZMENDI S.COOP-K EGINDAKO ESKAERA.**

Haur Eskolako Udal Zerbitzua (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) kudeatzeko kontratua zuen betetzeko berme bezala 2013. urtean jarritako bi fidantzak itzultzea eskatzen du Arizmendi Koop.E.-ak. Kontratu hori Udalbatzarrak 2013ko uztailaren 23an hartutako erabakiz esleitu zitzaison.

Hezkuntza arloko teknikariak egindako txostena ikusi da.

Kontratuaren berme epea amaitu dela eta hortik eratorritako betebeharraak egoki bete direla jotzen dugunez, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2013an 0 eta 3 urte arteko haur eskolako udal zerbitzua kudeatzeko esleitutako kontratuarengatik Arizmendi Koop. Elkarteak jarritako bermeak itzultzea. Berme horiek 601,53 eta 127,32 eurokoak dira.

#### **7.- KANPOKO ARGITERIA BERRIZTEKO DEBAGOIENA MANKOMUNITATEAREKIN SINATU BEHARREKO HITZARMENA.**

2016ko martxoaren 1ean, Udal honek hitzarmena sinatu zuen Debagoieneko Mankomunitatearekin kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko baterako proiektua garatzeko, energia dibertsifikatu eta aurreztekoinstittuak finantzatuta.

Hitzarmen horren arabera, aldeetako bakoitzak ondorengo konpromisoak hartu zituen:

***BIGARRENA.- Idatzitako proiektua kudeatzeari eta, hala badagokio, gauzatzeari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak honako lan hauetako egingo ditu:***

- *Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Instittuaren aurrean aurkeztea Hitzarmen hau sinatzen duten Udalek eta Mankomunitateak batera garaturiko proiektua.*
- *IDAEk onartzen badu aurkezturiko proiektua, aipaturiko onarpenaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera gehienez ere 3 hilabeteko epean, proiektua loteka gauzatzeko dagokion kontratacio-espeditoaren izapideak hasiko ditu Mankomunitateak, lote bakoitza udalerri bakoitzean aurreikusitako jarduketari dagokiolari.*

*Eraikuntza obretako osasun eta segurtasun araudi minimoa jasotzen duen 1997/1627 Errege Dekretuaren ildotik, Mankomunitatea promotore gisa arituko da.*

- *Proiektua esleitu ondoren, dagokion maileguia izenpetuko du oinarri erregulatzaleetan eta IDAEk egindako deialdian ezarritako baldintzen arabera.*

- *Mankomunitateak, implikaturiko udalen laguntzaz, proiektuaren garapena ikuskatuko du eta dagozkion fakturak ordainduko ditu, gehienez ere urtebeteko epean amaitu behar direlarik lanak, kontratua sinatu ondoren.*
- *Mankomunitateak udalei eskatuko dizkie IDAErekin kontrataturiko maileguaren amortizazioei aurre egiteko dagozkion ekarpenak, eta dagozkion ordainketak egingo ditu mailegu-kontratuan hitzarturiko epeetan.*
- *Mankomunitateak IDAEren deialdiekin bateragarri diren beste lagunza-deialdi batzuk aztertuko ditu, eta beharrezko gestioak egingo ditu horiek eskatzea eta, onartzen badira, gero kudeatzeko. Dena den, lagunza horiek IDAErekin hitzarturiko mailegua amortizatzeko erabiliko dira.*

**HIRUGARRENA-** Proiektuan parte hartzen duten Udalek, bestalde, honako lan hauek egingo dituzte:

- *Mankomunitatearekin kolaboratuko dute beren udalerrian kanpoko argiteria publikoaren instalazioak berritzeko lanak egiteko beharrezko lagunza teknikoa emanez, gai honetan adituak diren teknikarien dedikazioaren bidez.*
- *Proiektuan parte hartzen duten Udaletako bakoitzak dagozkion ekarpenak ordainduko ditu bere udalerrian gauzaturiko inbertsioen arabera, IDAErekin kontrataturiko maileguari dagozkion amortizazioak egin ahal izateko Mankomunitateak. Horretarako, IDAEren behin betiko ebazpenaren egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, emandako maileguaren zenbatekoa eta baldintzak ezagutzen direnean, Mankomunitateak proiektuan parte hartzen duten Udal bakoitzarekin hitzarmen bat sinatuko du egin beharreko ekarpenen zenbatekoak eta epeak zehaztuz.*
- *Proiektuan parte hartzen duten Udalek, hornikuntza eta instalazioaren harrera egin ondoren, egindako instalazioaren jabe izango dira eta beharrezko mantentze-lanak beren gain hartuko dituzte.*

*Kontratuan ezarritako berme epean, Mankomunitateak kudeatuko ditu enpresa esleipendunak konpondu beharreko aipatu epean sortutako arazoak.*

Mankomunitateak eta hitzarmena sinatu zuten udalek bateria landutako proiektua Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Instituvari (IDAEri) aurkeztuta, IDAEk proiektua onartu zuen; eta Mankomunitateak proiektua zatika exekutatzeko dagokion kontratazio espedientea izapidetu zuen. Zati bakoitza herri bakoitzean aurreikusitako jarduerari zegokion.

2016ko martxoaren 1ean sinatutako hitzarmenaren hirugarren baldintzan jasotako betez, orain, udal bakoitzarekin hitzarmen berri bat sinatzea proposatzen da. Hitzarmen horretan udal bakoitzak egin beharreko ekarpenaren zenbateko eta horretarako epeak zehazten dira.

Aurrez esandako guztian oinarrituz, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Energia Dibertsifikatu eta Aurrezko Institutuak finantzatutako kanpoko argiteriaren instalazioak berritzeko proposatutako hitzarmena sinatzea Debagoieneko Mankomunitatearekin. Hitzarmenak honako baldintza hauek ditu:

***LEHENENGOA.- Debagoieneko Mankomunitateko estatutuetako 7. artikuluak, Mankomunitateko helburua aipatzen duena, aplikatuz, beherago sinatzen dutenek, proposaturiko ekintza, artikulu horretako hirugarren atalari lotzea adostu dute. Atal horrek bereziki jasotzen baitu "udaletako ekintza konkretuen koordinaketa" egitea.***  
*Ondorioz, Eskoriatzako udalak batera idatzitako projektua garatzeko egin beharreko kudeaketa ekintzak burutzeko agindu zion Mankomunitateari eta, bide batez, Debagoieneko Mankomunitatea baimendu zuen, projektuan sartutako Eskoriatzako instalazioetan egin beharreko ekintzak burutzeko eta projektuaren exekuzio egokirako harta beharreko erabakiak hartzeko. Hori guztsia, instalazio horien titularitatearen kalterik gabe.*

***BIGARRENA.- Idatzitako projektuaren kudeaketa eta exekuzioari dagokionez, Debagoieneko Mankomunitateak ondorengo lanak burutu edo burutuko ditu:***

1. *Mankomunitateak, IDAE (Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía)ri Mankomunitatea eta Udalen artean garatutako projektua aurkeztu zuen.*
2. *Debagoieneko Mankomunitateak, IDAEk onartutako projektuan jasotako hornikuntza eta instalazio lanak, lehiaketa deialdi publikoaren bukaeran esleitu eta kontratatu zituen.*
3. *Debagoieneko Mankomunitateak mailegua sinatuko du IDAEk egindako deialdian jasotako araudiaren oinarriei lotuko dena.*
4. *Proektua gauzatzeko, Udalak lan teknikoen zuzendaritza eta jarraipen lanak burutuko ditu, horretarako Debagoieneko Mankomunitatearen lagunza izango duelarik eta Mankomunitateak projektuaren exekuzioaren ondoriozko zertifikazioak ordainduko ditu.*
5. *Debagoieneko Mankomunitateak IDAEkin sinatutako maileguaren amortizazio kuotak ordaindu ahal izateko, Eskoriatzako udalari dagozkion ekarpenak kobraztuko dizkio.*
6. *Debagoieneko Mankomunitateak IDAEko laguntzakin bateragarriak diren laguntza deialdiak aztertuko ditu eta horrela badagokio, eskaerak prestatu eta bideratuko ditu. Eskaera horiek onartuak izaten badira Mankomunitateak kudeatuko ditu, dena den, laguntza horiek IDAEkin sinatutako mailegua amortizatzen bideratuko ditu.*

***HIRUGARRENA.- Eskoriatzako udalak, ondorengo lanak burutuko ditu:***

7. *Kanpo argiteriako instalazioen berriztapenarekin erlazionaturiko lanak zuzendu eta jarraituko ditu behar besteko asistentzia teknikoa emanez, horretarako argiteri instalazioen arloan dituzten tekniko trebatuenak projektuaren zerbitzura jarriko ditu.*

8. *Debagoieneko Mankomunitateak IDAEkin kontrataturiko maileguaren amortizazioari aurre egin ahal diezaion, Eskoriatzako udalak egindako inbertsioen araberako dagozkion kuotak garaiz ordainduko ditu.*

**LAUGARRENA.-** *Eskoriatzako argiteria berritzearen kostea eta horien amortizaziorako egin beharreko ordainketak.*

*Eskoriatzako argiteria berritzeak 314.291,91,- euroko kostea izango du, BEZ barne. Koste hori estaltzeko, Mankomunitateak eskatutako mailegua amortizatzeko, Eskoriatzako udalak, 2018ko uztailean hasita eta bederatzi urtez, 2.910,12,- euroko hileko kuota ordainduko dio Debagoieneko Mankomunitateari.*

**Bigarrena.-** Hitzarmen hori sinatuta Udal honek hartzen dituen konpromiso ekonomikoei aurre egiteko, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 22. artikuluaren arabera, ondorengo gastua onartzea hainbat urtetarako:

<u>EKITALDIA</u>	<u>EKITALDIRAKO ZENBATEKOA (€)</u>
2018	17.460,72
2019, 2020, 2021, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026	34.921,44
2027	17.460,72

#### **8.- AURREKO EKITALDIETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.**

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaratuta egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoitztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuengatik aurreko ekitaldietatik kobraatu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako expedientearen berri eman da.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboei eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- Preskribatuta egoteagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 129,80 €.

17/04/01 etik 17/06/30 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK							
IZENA	KONTZEPTUA	URTEA	LIKIDAZIOA	KUOTA	ERREKARGOA	GUZTIRA	ZERGATIA
JUAN JOSE DIEZ RUIZ PETRA LOPEZ MURILLO	OHZ:LANDALURRA OHZ:HIRILURRA	2011 2011	3R 0335276 110T 3U 0034952 110P	50,95 39,71	10,19 28,95	61,14 68,66	PREZKRIZIOA.GEA PREZKRIZIOA.GEA
GUZTIRA				90,66	39,14	129,80	

- Bidezkoak ez izateagatik kobratzeke dauden eskubideen baja: 337,13 €

KONTZEP/EPEA/ZENBAKIA	ZENBATEKOA	KOSTAK	ZERGADUNA	ZERGATIA
001/201101/374	68,82	3,88	BARBERAN RABANCHO LUISA	Ezgaitasuna. NF 14/1989
001/201401/378	85,00	4,68	BARBERAN RABANCHO LUISA	Ezgaitasuna. NF 14/1989
001/201501/373	85,00	4,75	BARBERAN RABANCHO LUISA	Ezgaitasuna. NF 14/1989
001/201601/375	85,00	0,00	BARBERAN RABANCHO LUISA	Ezgaitasuna. NF 14/1989
GUZTIRA	323,82	13,31		

**BIGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea kontuhartzaileta eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoei beste arrazoiren batzuengatik preskribatutzat edo baliogabetutzat deklaratutako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

**9.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK  
BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan  
berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko  
3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritako betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2017ko bigarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**10.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK 2017KO BIGARREN HIRUHILEKOAN  
JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2017ko apirilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikulan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

1.- “*Justifikatzeko*” *igorritako funtsak justifikatu gabe egoteagatik obligazioak aitortzeari egindako eragozpen-txostena. (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)*

*(Kultura zerbitzuari emandako kutxa aurrerakina, 2017ko 4.a).*

2.- *LEINTZ ESKOLA KIROLARI* 2016an emandako diru laguntza kitatzeari buruzko erabakiari jarritako eragozpen-txostena.

*(Ez da justifikatu diru laguntzaren % 100a zertarako erabili den).*

*Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.*

## **11.- 2018-RAKO ORDENANTZA FISKALAK.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak, 2017ko irailaren 15ean egindako bileran, 2018rako ordenantza fiskalei buruzko diktamena eman zuen.

Guztiok ezaguturik diktamenaren eduki osoa, Alkateak hitz egiteko txandari hasiera eman dio.

Josu Ezkurdiak labur azaldu du batzorde informatzaileak egiten duen proposamenaren edukia.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 2018rako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean aurreikusitako moduan.

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, Ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

## **12.- ESKORIATZAKO UDALERRIAN JABARI PUBLIKO HIDRAULIKOKO IBILGU ETA ERTZEETAN ELKARREKIN ARITZEKO URAREN EUSKAL AGENTZIAREKIN LANKIDETZA PROTOKOLOA SINATZEA.**

Hirigintza eta Mugikortasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiekin alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako udalerrian jabari publiko hidraulikoko ibilgu eta ertzetan elkarrekin aritzeko uraren euskal agentziarekin lankidetza protokoloa sinatzea.

**Bigarrena.-** Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako protokoloa Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

## **13.- ESKORIATZAKO EAJ/PNV UDAL TALDEAK KATALUNIAKO INDEPENDENTZIA ERREFENDUMARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA (ETA) 14.- ESKORIATZAKO EH BILDUK KATALUNIAKO INDEPENDENTZIA ERREFENDUMARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Eskoriatzako EAJ/PNV-ko bozeramaleak eta Eskoriatzako EH BILDUko bozeramaleak adierazi dute euren taldeek kendu egiten dituztela gai zerrendan sartuta zituzten mozioak eta horietako bakoitzaren alternatiba bezala ondorengo mozioa aurkezten dutela:

1.- *Eskoriatzako udalak kezka adierazi eta baztertu egiten du egitateen bidez Kataluniako autonomian esku hartzeagatik, eta Estatuoko segurtasun indar eta kidegoek egindako operazio polizialegatik, zeinaren bidez erregistroak eta atxiloketak egin baitiren Generalitateko instalazioetan bere arduradun legitimoei.*

2.- *Eskoriatza udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala oinarrizko eta funsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaaren oinarrizko printzipioen aurkakoa.*

3.- *Eskoriatzako udalak berretsi egiten du funsezko printzipo demokratiko guztiekin konpromisoa, eta elkartasuna adierazten die Catalunya-ko herriari, eta baita demokraziaren aurkako errepresio politikoa - Espainiako Gobernuak gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.*

4.-*Eskoriatzako udalak dei egiten du Kataluniako herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratzea eta erabakiak errespetatzera.*

5.- *Eskoriatzako udalak bat egiten du Kataluinan hartzen duten erabakiarekin.*

6.- *Udaleko balkoian estelada jartzea urriak 2 arte.*

Mozio alternatiboa aho batez onartu da.

## **15.- GALDERAK ETA ESKARIAK.**

Aitor Zubizarretak adierazi du iaz, aurrekontua onartu zenean, erabaki zela hurrengo aurrekontua prestatzeko parte-hartze prozesua irekiko zela herritarren proposamenak jasotzea, eta ekainean hasiko zela prozesua. Ondoren, parte hartze prozesuaz galdu du.

Josuk erantzun dio bere taldeak konpromisoa hartu zuela herritarrek eta herriko elkarteeik egin zezaketen proposamenak eta iradokizunak jasotzea, eta modu ofizialean eta ez ofizialean jasotzen ari direla sarritan egiten dituzten bileretan, eta horietan egindako ekarpenak neurri handi batean jasotzen ari direla aurkezten dituzten aurrekontu proposamenetan. Adierazi du, iaz ez bezala, aurten epe zabala emango zaiela udal taldeei, ia hilabete, egoki iritzitako ekarpenak egin ditzaten Alkateak egingo duen proposamenari, eta proposamen horrek, zenbakiez gain planteamendu estrategikoa ere izango duela.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## ERANSKINA

### ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

**2017an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

**A) Zerga-neurriak:**

Hiri-izaerakoak:

INDUSTRIALDEAK: zerga-neurria 0, 60

GAINONTZEKO GUNEAK: Zerga-neurria 0,2350

Landa izaerakoak: 1,1

**B) Aurreikusten diren errekarguak eta hobariak:**

3.4. artikulua. Indargabetuta 2016ko urtarrilaren 1etik.

3.5. artikulua. Ohiko bizilekua denean, kuota osoko hobari hauek aplikatuko zaizkie familia ugaria diren subjektu pasiboei:

• Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldaterekiko (LAGS)					
	x   LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3	%45	%40	%25	%15	-	-
4	%45	%45	%40	%25	%15	-
5 edo >	%50	%45	%45	%40	%25	%15

**X = familia unitateko kide guztiengatik osotutako soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.**

“Hobari eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. *Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztienei “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostena jaso ondoren*”.

### 3.6. artikulua.- Indargabetuta 2013ko urtarrilaren 1etik.

3.7. artikulua.- Ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota osoaren %50eko hobaria ezarriko da energia berritzagarridun sistemak jarri dituzten ondasun higiezinentzat. *Hobari edo beherapen hori izateko, beroa sortzeko instalazioetako kolektoreek Administrazioaren homologazioa jaso behar dute, eta hobaria aplikatuko da instalakuntza egin dela ziurtatu ondorengo lehen 5 urteetan.*

*Hobari honetatik salbuetsita geratzen dira eraikuntza berriko higiezinak, indarrean dagoen Eraikuntzako Kode Teknikoak ezarritakoa betez, instalatuta daukatalako sistema hori.*

3.8. artikulua.- Kuota osoaren %50eko hobaria ezarriko da ondasun higiezinentzat, ondasun horiek “Etxebizitza Hutsaren Programa”ren baitan utzitakoak direnean, Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuaren babesean. Beherapen hau aplikatzeko, Eusko Jaurlaritzak egindako ziurtagiria aurkeztu behar da Udaletxean.

3.9. artikulua.- Aurreko artikuluetako hobariak jaso ahal izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

1.- Higiezinak derrigorrezko udal lizenziak edo baimenak izan beharko ditu.

2.- Subjektu pasiboak honako baldintzak bete beharko ditu:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

## **JARDUERA EKONOMIKOAREN GAINeko ZERGA**

**2017an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

### **2. artikulua.**

**2017/09/26  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**  
13

Udalerrri honetan zergapetutako jardueretarako, Foru Aldundiak Zerga honen Tarifetan ezarri dituen gutxieneko kuotei 1.ERANSKINEAN azaltzen diren igoera zein haztapen koefizienteak gehituko zaizkie.

## I ERANSKINA

### **Foru Arauan finkatutako gutxieneko kuoten gehikuntzaren koefiziente bakarra:**

- Udal koefizientea: ..... 2,1567

- Haztapen koefizientea, subjektu pasiboaren negozio zifraren kopuru garbiaren arabera.

Negozio zifraren kopuru garbia                    KOEFIZIENTEA

(1/1993 FA, 11. art.) (uztailaren 4ko 4/2002 Foru Araua, 2. art.)

1.000.000,00 €-tik 5.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,29
5.000.000,01 €-tik 10.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,30
10.000.000,01 €-tik 50.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,32
50.000.000,01 €-tik 10.000.000,00 €-ra bitartekoak.....	1,33
100.000.000,00 €-tik aurrerakoak.....	1,35
Negozio zifra garbirik ez dutenek.....	1,31

Ondorengo hobaria ezartzen da:

a) Hobaria aplikatu aurreko zerga aldian horren aurreko zerga aldiarekiko enplegua sortu eta mugagabeko kontratuarekin langile plantilaren batez bestekoa igo duten subjektu pasiboei dagokien kuotan % 5, 10 edo 20ko hobaria egingo zaie. Hobaria modu honetara aplikatuko da:

*Langile kopurua % 5ean handitz gero, % 10eko hobaria.*

*Langile kopurua % 10ean handitz gero, % 20ko hobaria.*

*Langile kopurua % 20an handitz gero, % 40ko hobaria.*

*Hobaria egiteko eskaera urteko errolda itxi aurretik egin beharko da. Urteko errolda behin betiko itxi ondoren aurkeztutako eskaerek ez dute ondoriorik sortuko indarrean dagoen ekitaldian.*

## TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINeko ZERGA

### **2017-an INDARREAN ZEGOENA MANTENTZEA, ALDAKETA BATEKIN IBILGAILU ELEKTRIKO ETA HIBRIDOLENTZAKO HOBARIAN**

**Tarifak:**

Ibilgailuen potentzia eta ibilgailu mota	Kuota (eurotan)
a) Turismoak	
9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	42,50
9-11,99 zaldi fiskal bitartekoak	85
12-13,99 zaldi fiskal bitartekoak	144,35
14-15,99 zaldi fiskal bitartekoak	204,35
16-19,99 zaldi fiskal bitartekoak	262,65
20 zaldi fiskal edo gehiagokoak	321,05
b) Autobusak.	
21 plaza baino gutxiagokoak	193,25
21-50 plaza bitartekoak	275,25
50 plaza baino gehiagokoak	344,10
c) Kamioiak.	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	98,10
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	193,30
3.000-9.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	275,30
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	344,10
d) Traktoreak.	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	41
16-25 zaldi fiskal bitartekoak	64,40

25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	193,30
e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramateko erremolkeak eta erdierremolkeak	
750 kg baino gehiago eta 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria dutenak	41
1.000-2.999 kg bitarteko karga erabilgarria dutenak	64,40
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	193,30
f) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotoreak	10,40
125 cc-ra arteko motozikletak	10,40
125 cc-tik gora eta 250 cc-ra arteko motozikletak	17,80
250 cc-tik gora eta 500 cc-ra arteko motozikletak	35,70
500 cc-tik gora eta 1.000 cc-ra arteko motozikletak	71,35
1.000 cc baino gehiagoko motozikletak	142,70

Ondorengo hobariak finkatu dira:

3.1.- HOBARIAK: Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoien kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean. Pertsona juridikoien kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

3.1.1. Zerga kuotaren %50eko hobaria izango dute fabrikatu ziren datatik zenbatuta hogeita bost urte baino gehiago eta berrogeita hamar baino gutxiago dituzten ibilgailuek, eta zerga kuotaren %100eko hobaria fabrikatu ziren datatik gutxienez berrogeita hamar dituztenak. Fabrikazio data ezaguna ez balitz, lehenengo aldiz matrikulatu zeneko data hartuko da kontuan,

eta matrikulazio datarik ezean, ibilgailu-mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaineke data.

**3.1.2.1.-** Zerga kuotan % 75eko hobaria izango dute motor hibridoa duten ibilgailuek (elektrikoa eta gasolina, elektrikoa eta diesela edo elektrikoa eta gasa). Fabrikan bertan homologatuta egon beharko dira. Zerga hobaria 5 urtera mugatuko da lehenengo matrikulazio egunetik kontatzen hasita.

Zerga kuotan % 95eko hobaria izango dute motor elektrikodun ibilgailuak fabrikan bertan homologatuta baldin badaude.

### **3.1.3** Indargabetuta 2016ko urtarrilaren 1etik.

**3.1.4.-** Familia ugaria diren subjektu pasiboei, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zergaren kuota osoan. Salbuespna bizikidetza unitatearen bost plaza edo gehiagoko ibilgailu bakarrari aplikatuko zaio.

• Seme-alaba kopurua	Hileko soldata, Lanbide Arteko Gutxieneko Soldaterekiko (LAGS)					
	x LAGS	x: LAGS + %10 arte	x: LAGS + %20 arte	x: LAGS + %30 arte	x: LAGS + %50 arte	x: LAGS + %60 arte
3 4 5 edo >	%45 %45 %50	%40 %45 %45	%25 %40 %45	%15 %25 %40	- %15 %25	- - %15

**X** = familia unitateko kide guztien soldaten batura zati familia unitateko kide kopurua.

“Hobaria aplikatu ahal izateko, interesatuek hobaria egiteko eskatu beharko dute. Diru laguntza eskaera Gizarte Zerbitzuetan egin beharko da, eta eskaerarekin batera agiri osagarri guztiak aurkeztu beharko dira. Sail horretako teknikariek familia-unitatea osatzen duten kide guztien “hileko soldata mailaren” berri emango dute. Eskaeraren gaineko erabakia Alkateak hartuko du Ogasun Batzorde informatzailearen txostenaren jaso ondoren”.

## **HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINeko ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

## **2017an INDARREAN ZEGOENA MANTENDU.**

### **II. PORTZENTAJE TAUZA:**

<u>EPEA</u>	<u>URTEKO PORTZENTAJEA</u>
a) 1etik 5 urtera .....	3,6
b) 10 urte arte .....	3,4
c) 15 urte arte .....	3,1
d) 20 urte arte .....	2,9

### **III. TARIFA**

a) 1etik 5 urtera .....	% 7,88
b) 10 urte arte .....	% 7,35
c) 15 urte arte .....	% 5,77
d) 20 urte arte .....	% 5,57

**6. artikulua.** Indargabetuta 2016ko urtarrilaren 1etik

**7. artikulua.** (2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin).

1. Subjektu pasiboak honako hauek dira:

a) *Lurren kostu gabeko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu gabeko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskuratzenten duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen duen entitatea, edo, bestela, dena delako eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaion pertsona.*

b) *Lurren kostu bidezko eskualdaketetan edo jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealen kostu bidezko eraketan edo eskualdaketan, lurra eskualdatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatzen duen entitatea, edo dena delako eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duena.*

2. Aurreko apartatuko b) letran aipatutako kasuetan, lurra eskuratzenten duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluaren 3. apartatuan aipatutako entitatea, nahiz eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen zaiona, zergadunaren ordezko subjektu pasibo izango da baldin eta zergaduna Espanian egoitzarik ez duen pertsona fisiko bat edo entitate bat bada, ordezkarria izendatzeko obligaziorik ez badu, edo obligazio hori edukita, ordezkarriak solidarioki erantzuten ez badu ordezkatuaren zerga zorra ordaintzeko obligazioari dagokionez.

3. Lurrak ohiko etxebizitzaren hipoteka betearazteagatik eskualdatzen direnean, haien eskuratzenten dituen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den entitatea hartuko da zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkoak ezingo dio zergadunari exijitu ordaindutako obligazio tributarioaren zenbatekoa.

Apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoentzako Errentaren gaineke Zergarenak, 90.8 artikuluan halakotzat definitutakoa.

4. martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoak, 2. artikuluan ezarritakoan sartzen diren zordunek euren etxebizitza zorren ordainez emateagatik egindako eskualdaketetan, ondasun higiezina eskuratzen duen entitatea izango da zergadunaren ordezko subjektu pasiboa, eta ordezkoak ezin izango dio zergadunari exijitu ordaindutako zerga obligazioen zenbatekoa».

#### **ERAIKUNTA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

#### **2017an INDARREAN ZEGOENA MANTENTZEA, 5.3.2 PUNTUAN EGINDAKO ALDAKETA IZAN EZIK.**

Honako zerga-neurriak zehaztu dira:

<u>Eraikin, instalakuntza edo obra mota</u>	<u>Karga tasa</u>
• Eusko Jaurlaritzak sustatuta lege eta ekonomia baldintzei dagokienez babes ofizialeko etxebizitza gisa egindako etxebizitza, etxabe eta garajeetako obrak	..... 2,66 %
• Gainerako obrak .....	..... %5
• Birgaitze osoak egiteko edo eraikinak ordezkatzenko obrak	% 2

#### **Zaharberritze obrak:**

Ondorengo emaitzen bat lortzea helburu duten jarduerak:

A) Eraikinaren egituraren egokitzapena, horrelakotzat joz eraikinari eraikuntza-segurtasun baldintzak eman eta bere egonkortasuna eta erresistentzia mekanikoa bermatzen dizkiotenak.

B) Egokitzapen funtzionala, eraikinari behar besteko baldintzak emango dizkioten obrak honako hauetakoak: sarbidea; euri eta hezetasunarekiko estankotasuna; isolamendu termikoa; ur, gas, argindar, telefono, saneamendu eta zerbitzu orokor sareak; eta istripu eta ezbeharren aurkako segurtasuna.

*Era berean, eraikinen egokitasun funtzionalerako obratzat joko dira indarrean dagoen araudiaren arabera oztopoak kentzeko eta irisgarritasuna sustatzeko helburu duten jarduerak.*

C) *Etxebitzadun eraikin bat zaharberritzeak etxebitzarako azalera edo etxebizitza kopurua aldatzea helburu duenean, edo etxebitzarik gabeko eraikin bat zaharberritzeak etxebizitzak egitea helburu duenean.*

*Obra bat zaharberritze integralekotzat joko da atal honetan deskribatutako helburu guztiak betetze alderako jarduerak helburu dituenean.*

**Ordezkapena:**

*Eraikuntza esku-hartze mota hau lehendik zegoen eraikuntza bat bota eta berriz egitera zuzenduta dago.*

**5.3 Hobariak**

5.3.1.- Hobariak dituzten obrak obra handiagoaren zati direnean, hobaria jaso ahal izateko aurrekontu banakatua aurkeztu beharko du eskatzaileak, hau da, obra handiarena zein horren zatiarena.

5.3.2- Ordenantza honetan aurreikusitako edozein hobari jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboak ondorengo baldintzak betetzea:

A.- Udalari ordaindu beharreko zergak kitatuta edukitzea.

B.- Pertsona fisikoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea zergaren sortzapen-unean.  
Pertsona juridikoen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea.

C.- Jakinarazitako behin-behineko kitapena ordainduta izatea.

Ordainketa subjektu talde batek egin behar duenean (jabekideak eta abar), aplikatuko zaion hobaria talde horretako kideek baldintzok betetzen dituzten portzentajearen adinakoa izango da.

5.3.2.BIS- Zerga honetan emango diren hobariak -birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru lagunza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2 eta 5.3.3.3 puntuetan jasotakoak izan ezik- eskatzeo epea sei hilabetekoa izango da kitapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru lagunza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2 eta 5.3.3.3 puntuetan jasotako hobariak eskatzeo epea 3 hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak obra ziurtagiria ematen duen egunetik kontatzen hasita.

Hobaria eskatzeo epe barruan ezin bada aurkeztu eskatutako baldintza guztiak betetzen direla egiazatzeko dokumentazioa, idatziz adierazi beharko da hori, eta inguruabarren arabera, 6 hilabetera arteko luzapena eman ahal izango da.

Inolaz ere, hau da, epe barruan ere, ez da onartuko alegatutako baldintza egiazatzeko hiru hilabetetik gorako antzinatasuna duen dokumenturik.

Zergaren behin betiko kitapena egindakoan, indarrean dagoen ordenantza honen 13. artikuluari jarraiki, aplikatuko dira aitortutako hobariak.

5.3.3.- Ondorengo hobariak finkatu dira:

5.3.3.1. Nekazaritza, abeltzaintza edota baso ustiaketetara lotutako eraikinetan edo instalazioetan egindako obrak, baldin eta lurzoru ez-urbanizagarrian badaude:

- \* Hobari-eskaria jarduera lehentasunezko nekazaritza ustiategitzat kalifikatutako ustiaketa baten titularrak egiten badu, kuotaren %90eko hobaria izango dute ondorengo obra hauek:
  - Fatxada berritzea.
  - Teilatua berritzea.
  - Baserria birgaitzea.
  - Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basoko instalazioetan egindako birgaitzea edo obra berria.
- 5. Hobari-eskaria GFAk nekazaritza ustiategitzat kalifikatutako ustiategi baten titularrak egiten badu, kuotaren %50eko hobaria izango dute ondorengo obra hauek:
  - Fatxada berritzea.
  - Teilatua berritzea.
  - Baserria birgaitzea.
  - Nekazaritzako, abeltzaintzako edo basoko instalazioetan egindako birgaitzea edo obra berria.

Atal honetako hobariak eskuratzeko, eskatzaileak, hobari eskariarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskumena duen organoak emandako ziurtagiria, bertan jaso beharko dira ustiategiaren titularra nor den eta jarduera horri eskaintzen dion denbora (jarduera nagusia edo partziala den).
2. Hala badagokio, lehentasunezko nekazaritza ustiategia dela dioen ziurtagiria, eskumena duen organoak emanda.
3. Zinpeko aitorpena, emango zaion ereduari jarraiki. Bertan adierazi beharko du aurrerantzean ere ustiategia izango duela jarduera nagusia edo partziala/mistoa eta ingurumena zainduko duela.

Eraikina edo instalazioa ustiategi bati lotutzat joko da ondorengo egoeraren bat dagoenean:

a) Eraikina egiteko baimena barazki eta abeltzaintza ustiategi batera lotutako eraikuntza lizentziaren babesean eman bada.

b) Eraikin horren jabetza osoaren edo erabilera jabegoaren titulartasuna izatea ustiategiaren titularrak eta ustiategiaren kudeatzaileak eraikina ohiko etxebizitzarako (erroldako etxebizitza) edo ustiategirako erabiltzea.

**5.3.3.2.-** Obrak Osoko Birgaitze Arean (OBA) dauden eraikuntzetan eta Alde Zaharra Birgaitzeko Planaren arabera egiten badira, %90eko hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan. Edonola ere, obra horiek hobaria izango dute, alde batetik, eskatzailea obra egin beharreko etxeen bertan biziko bada, eta bestetik, obrak etxebizitza-eraikin batean baldin badira eta sustatzaileen %50 edo gehiago bertan bizi badira. Kasu bietan hobaria emateko, eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak (diru laguntzak edo maileguak) eskuratu beharko dituzte.

**5.3.3.3.** Birgaitze isolatua duten eraikinetako obretan, %50eko hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan. Edonola ere, obra horiek hobaria izango dute, alde batetik, eskatzailea obra egin beharreko etxeen bertan biziko bada, eta bestetik, obrak etxebizitza-eraikin batean baldin badira eta sustatzaileen %50 edo gehiago bertan bizi badira. Kasu bietan hobaria emateko eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak (diru laguntzak edo maileguak) eskuratu beharko dituzte.

**5.3.3.4.** Interes bereziko edo udal erabilerrako izendatzen diren eraikuntza, instalazio eta obretan (arrazoi sozial, kultural, historiko-artistiko edo lana bultzatzekoak direla medio) % 95eko hobaria emango da zerga honek kitatzen dituen kuotetan.

Udalbatzarraren esku dago izendapen hori egitea.

**5.3.3.5.** Kuotan %90eko hobaria izango dute igogailua jartzeko obrek, baldin eta eraikinak bi solairu edo gehiago baditu, bere erabilera nagusia etxebizitzatarako bada, eta instalazioa bat baldin badator berariaz egindako udal ordenantzan edota planeamenduan exijitzen diren baldintzakin. Hobari hauetarako eskubiderik ez da izango igogailu zaharren ordez berria jartzeko obrak direnean; ezta igogailua familiabakarreko edo familia biko etxeetarako denean ere (berdin da etxeak banakakoak edo atxikitakoak izan), eta oro har, ez dute eskubiderik izango promotore eta kontratistik egindako eraikuntza berrietan jarritako igogailuek (nahiz eta eraikuntza berria zaharraren ordez eraiki).

Aurreko paragrafoan esaten den ordenantza onartu bitartean, Udalbatzarra izango da eskuduna hobariak onartzeko, eta horretarako baldintza hauek bete behar dira:

1. Igogailua eraikinaren barruan jarri beharko da.
2. Obrek indarrean dagoen legeria bete beharko dute.
3. Aukera guztien artetik, etxebizitzetara irisgarritasunik onena eskaintzen duen instalazioa jarri beharko da.
4. Instalazioa inguruko antzeko eraikinetakoentzako antzekoa izan beharko da.
5. Lurzoru publikoan eta lerrokaduretan ahalik eta txikienak izango dira kalteak.

Kasu bereziren batean, salbuespen gisa, hobari hau eman ahal izango da instalazioa eraikinetik kango egin arren, baldin eta gainerako baldintza guztiak betetzen badira.

5.3.3.6.- Mugikortasun murritzua duten elbarrien irisgarritasuna hobetzeko obrek kuotaren %90eko beherapena izango dute, baldin eta honako hauek egiaztatzen badira:

Familia unitateko pertsonek daukaten elbarritasun maila, egin beharreko obra justifikatzen duena.

Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen aldeko erabakia, obrak elbarritasun-maila horri egokitzen zaizkiola adieraziz.

Hobari edo beherapenak irisgarritasuna hobetzeko diren obretan bakarrik emango dira. Hobaria jasoko duten obrak beste obra handiago baten zati badira, eskatzaileak aurrekontuan bereizita aurkeztu beharko ditu obra batzuk eta besteak.

Obra komunitate batean egiten denean, mugikortasun murritzua duen personaren biziakidetza unitateari ordaintzea dagokion zati proportzionalari emango zaio bakarrik diru laguntza.

Hobari bera egingo zaie elbarrien irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko eraikuntza, instalazio eta obrei, administrazio publikoren batek edo horren menpeko erakunderen batek sustatutakoak baldin badira.

5.3.3.7. Zerga-kuotaren %90eko hobaria emango zaie fatxaden tratamenduko obrei, baldin eta kale/plaza bereko eraikinetan batera egiten badira.

5.3.3.8. Energia berriztagarrien aprobetxamendua daukaten eraikuntza eta instalazioek %95eko hobaria izango dute. Hobaria emateko, beroa sortzeko instalazioek Administratzioak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte. Halaber, ez da hobaririk egingo Eraikuntzako Kode Teknikoak (EKT) berak behartuta jarri badu promotoreak instalazioa. Aipatutako energia sistemak jartzeko obrei dagokien aurrekontuko zatiak bakarrik izango du hobaria, obraren gainontzeko zatiak ez baitu besterik gabe hobaririk izango sistema horiek jarri direlako.

5.3.3.9- EIOZaren kuotan % 100eko hobaria emango zaio industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala egokitzen duenari langabeziian dagoela egiaztatzen badu. EIOZaren kuotan % 90eko hobaria emango zaie egun martxan dagoen industria edo merkataritza jarduera baterako lokala egokitzen duenari, jarduera horren sustatzaileak langabeziian dagoela egiaztatzen badu. EIOZaren kuotan % 75eko hobaria emango zaio industria edo merkataritza jarduera berria jartzeko lokala egokitzen duenari hiri lurzoruan, edo landa lurzoruan kokatutako eta martxan dagoen jarduerarako lokala egokitzen duenari, nahiz eta jarduera horren sustatzailea langabeziian ez egon.

5.3.3.10.- % 50eko hobaria izango dute babes ofizialeko etxebitzekin lotutako eraikuntza, instalazio eta obrek, administrazio publiko batek edo horren menpeko erakunderen batek sustatutakoak baldin badira, eta baita EAEko lurzoruan eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen zuzkidura-alojamenduekin lotutakoek ere.

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.**

**2017an INDARREAN ZEGOENA MANTENTZEA, DOKUMENTUAK KONPULTSATZEAGATIK  
ETA UR HORNIDURA TASAN IZANDAKO ALDAKETAK IZAN EZIK.**

**1 ERANSKINA**

**HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAGATIKO TASAK**

**Bat:** Hiraintza lizentziak emateagatiko tasak honako hauek izango dira:

OBRA LIZENTZIA:

1.- Etxebitzatarako lizentziak.....	<b>Obra aurrekontuaren % 0,31</b>
2.- Industria eta zerbitzutarako lizentziak.....	<b>Obra aurrekontuaren % 0,31</b>

ETXEBIZITZA LEHENENGOZ ERABILI ETA OKUPATZEKO LIZENTZIA:

- Etxebitzta bakoitzeko.	
5 etxebitzta arte.....	<b>51,55 €</b>
6. etxebitztatik aurrera .....	<b>25,77 €</b>
- Etxebitzta adosatu bakoitzeko.....	<b>329,67 €</b>
- Familia bakarreko etxebitztzak –nekazaritza ustiapenik gabeak- .....	<b>379,13 €</b>
- Bi familiako etxebitztzak –nekazaritza ustiapenik gabeak-.....	<b>567,04 €</b>
- Nekazaritza ustiapena duen eraikineko etxebitzta bakoitzeko .....	<b>25,77 €</b>

PARTZELAK BANANDU ETA BATERATZEKO LIZENTZIA:

- Hiri lurretan: .....	<b>241,19 €</b>
------------------------	-----------------

- Landa lurretan: ..... **72,43 €**

**Bigarrena.-** % 90eko beherapena aplikatuko da etxebizitzak eraikitzeko lizentziak tramitatzean, baldin eta Udalak zeharbidez sustatu baditu, bere lurrik besterentzean adjudikazio-hartzaileari etxebizitzak eraikitzeko baldintza jarriaz.

## **2 ERANSKINA**

### **JARDUERA ZABALTZEKO ETA FUNTZIONAMENDUAN JARTZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIKO EDO, HALA BALITZ, KONTROL JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIKO TASA**

Tasa honen zerga-gaia establezimenduak irekitzeko lizentzia ematea da, edo lizentziaren ordez ardurapeko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa behar denetan, kontrol jarduera administratiboak egitea.

**Lehenengoa.-** 2018. urterako tarifik honako hauek izango dira:

#### **JARDUERA:**

- Merkataritza.....	<b>465,48 €</b>
- Zerbitzuak .....	<b>636,69 €</b>
- Ostalaritza.....	<b>884,56 €</b>
- Familia izaerako aisialdia (txokoa) .....	<b>162,31 €</b>
250 m <sup>2</sup> -tik 499 m <sup>2</sup> -ra bitartekoetan.....	<b>% 100eko igoera.</b>
500 m <sup>2</sup> edo gehiagoko azaleretan.....	<b>% 200eko igoera.</b>
- Industria:	
249 m <sup>2</sup> arteko azaleretan.....	<b>764,05 €</b>
250 m <sup>2</sup> -tik 499 m <sup>2</sup> ra bitartekoetan.....	<b>2.060,14 €</b>
500 m <sup>2</sup> edo gehiagoko azaleretan.....	<b>3.597,85 €</b>
- Aurrezki kuxak, bankuak, entitate finantzarioak.....	<b>6.791,20 €</b>
- Nekazaritza, abeltzantza edota baso ustiaketetara lotutakoak.....	<b>20,10 €</b>
- Garajeak .....	<b>20 €</b>

